



'Pesetrack' kanpainak pezeta berreskuratuko du kontsumoa sustatzeko tokiko merkataritzan

Arabadendak-en ekimena da, foru aldundiaren babesarekin

Autokarabana batek Araba zeharkatuko du pezetak trukatzeko erosketak txartelekina

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 17a.- 'Pesetrack' kanpainak berriro emango dio balioa pezeta zaharrari datozen asteetan, txikizkako merkataritzan, ekoizleetan eta tokiko profesionaletan kontsumoa bultzatzeko eta sektorea dinamizatzeko. Autokarabana bat Arabako eskualdeetan zehar ibiliko da pezetak txanponetan eta billeteetan jasotzeko, eta erosketak txartelekina aldatzeko, atxikitako establezimenduetan produktuak eta zerbitzuak erosteko.

'Pesetrack' 'Arabadendak' merkatarien elkartearen ekimena da, eta Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailaren eta Caja Ruralen babesarekin. Fournier Kartak eta Autocarabanas Nortek ere elkarlanean dihardute proiektua garatzen, zeina bat baitator Espainiako Bankuan pezetak euroekin aldatzeko epea behin betiko ixtearekin ekainaren 30ean.

Cristina Gonzalez bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Saileko foru diputatuak eta Victor Ibáñez Arabadendak elkartearen presidentea kanpaina aurkeztu dute gaur prentsaurrekoan, baita pezetan bila lurraldeko eskualde guztiak zeharkatuko dituen autokarabana ere. "Sektorearen eskutik lan egiten jarraitzen dugu, gaur iragarri dugunaren moduko ekimenetan, tokiko merkataritza dinamizatzeko eta babesteko".

"Tokiko merkataritza funtsezkoa da gure herri eta hirietako bizitza sozial eta ekonomikoan; izan ere, aberastasuna eta enplegua sortzen ditu, kalitatezko produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera ematen du, eta, berez, bisitatzen gaituztenentzat erakargarri turistikoa da. Kanpaina honek Arabako herri txiki eta ertainetako denda, ekoizle eta profesionalen kontsumoa sustatzen du", adierazi du Cristina Gonzálezek.

Victor Ibáñezek jakitera eman duenez, kanpaina datorren astelehenean, maiatzak 24, hasiko da, 'Pesetrack' autokarabana abian jartzeaz hauek bisitatzeko: Maeztu, Kanpezu eta Urizaharra Mendialdean; Agurain eta Araia Arabako Lautadan; Oion, Guardia, Eltziegion eta Bastida Arabako Errioxan; Iruña Oka eta Erriberabeitia Añanan; Okendo, Artziniega, Audio, Amurrio eta Arespalditza Aiaran; eta Aramaio, Legutio, Murgia, Izarra, Ondategi eta Gopegi Gorbeialdean.



"Autokarabana hori gune mugikor bihurtuko da maiatzaren 24tik ekainaren 10era, oraindik gure etxeetan ditugun pezetak jasotzeko eta pezetan zenbatekoan baloratutako erosketak txarteekin aldatzeko (eurotan itzulita), kanpainari atxikitako gure kuadrilletako tokiko establezimenduetan eta ekoizleetan gastatzeko. Bonuak 2021eko irailaren 30era arte erabili ahal izango dira", azaldu du.

Kontsumitzaileek www.arabadendak.eus web orrian kontsultatu ahal izango dute kanpainan izena eman duten merkatari eta profesional guztien zerrenda eguneratua, eta merkatariak, berriz, eurotan jasoko dute beren establezimenduetan trukaturako txartelen balioa. Dendek, ekoizleak eta profesionalek edozein unetan egin ahal izango dute bat 'Pesetrack' kanpainarekin doan.